

Barrez lehertu

Sonia Villamor

1. ESZENA

Gazte talde bat emanaldi bat prestatzen ikusiko dugu. Ikastetxeko txiste lehiaketa antolatzen ari dira. Guztiak urduri daude, eta leku batetik bestera ari dira gauzak mugitzen. Parte-hartzaileak anto-lakuntza lanetan dabilta (hemendik aurrera, parte-hartzaileei «P» deituko diegu).

(Bi lagun, P2 eta P3, aulki bat kokatzen ari dira).

P1: Hori erdi erdi-erdian kokatu behar duzue.

P2: Erdian?

P3: (Poltsikotik papera ateratzen) Ez horixe! Azalpen hauen arabera...

P1: Erdian utzi eta listo!

P2: Ez dakit zertarako dagoen plangintza.

P3: (Erlojuari begira) Bokata ordua, gero arte!

P1: Baina nora zoaz?? Lana amaitu behar da!

P2: Noiz izango da emanaldia ba?

P3: Ez nago ziur, baina esango nuke...

P1: *Ez adarrik jo niri (teknikariari zuzenduta). Argiak probatzeko prest?*

(Teknikaria beste batekin hitz egiten sartuko da; P4 eta P5 dira).

P4: *Oraindik ezin da. Entseetzen ari gara.*

P5: *Bai! gure txisteak munduko onenak izango dira.*

P4: *Entzuteko prest?*

P2-P3: *Baaa!!!*

P1: *Orain ezin da. Dena utzi behar da prest. Emanaldia bi ordu barru da.*

P3: *Zer umore gutxi duzun!*

P2: *Gezurra dirudi zu antolatzailea izatea.*

P4: *(Gorrena egiten) Honekin barrez lehertuko zarete.*

P5: *(Txiste bat kontatzen hasiko da)*

Lelo bat izozki denda batean sartu da eta esan dio izozkigileari:

- Emango didazu izozki bat, mesedez?

- Zer zapozkoa?

- Berdin zait, erori egingo zait...

Guztiak hasiko dira barrezka, P1 izan ezik .Etsita dago.

P1: *Amaituko dugu behingoz? Laster bazkaltzera joango gara.*

P3: *Eskerrak! (gose keinua eginez)*

Guztiak lanak amaitzen ikusiko ditugu. Pixkanaka ateratzen joan-go dira. Transizio musika. Musikarekin batera munstroak sartzen hasiko dira, kontu handi,z nahiko torpeak baitira. Beldurturik dau-de. 5 dira (hemendik aurrera «M»). M-ek arropa handia daramate, txiste gosea dutelako: txiste barik desegin egiten dira.

2. ESZENA

- M1: Hauxe da lekua!*
M2: Polita da. (Bat-batean negarrez hasiko da)
M3: (M2rekin batera, negarrez hasten da) Ea honek balio duen.
M4: Gure aukera bakarra da, begira ze argal gauden.
M5: Beldurra baino, pena ematen dugu!
M1: Lasai, lagunok, bolada txarra pasatzen ari gara.
M2: Txarra ez, oso-oso-oso txarra!
M3: Horrela jarraituz gero...
M4: Desagertu egingo gara.
M5: Txisteak behar ditugu, gure elikagaia dira.
M1: Hemen lortuko ditugu, di-da batean!
M2: Eta berriro izango gara...
M3: Potoloak...
M4: Erraldoiak...
M5: ... eta beldurgarrienak!

Barrez hasiko dira guztiak, oso ozen.

- M1: Ixilik! Ezin gaituzte ikusi.*
M2: Bestela uxatu egingo ditugu.
M3: Eta txiste lehiaketa bertan behera geratuko da.
M4: Kontu handiz ibiltzea da onena. (Hori esaten duenean zerbait botako du, eta zarata aterako du)
G: (Ixilik egoteko keinua egiten) Shhhhh!!!!
M5: Ai, ipuinek! Zelako mina eman diguten...

Ahots zaratak entzungo dira urrunetik, munstroak ikaratu egingo dira, eta korrika egiten hasiko dira, pailazoen antzera. Azkenean, alde egingo dute.

Aurreko lagunak, P1, P2, P3, P4 eta P5, sartuko dira, eta atrila lurrean botata ikusiko dute. Txistek kontatzen sartuko dira.

3. ESZENA

P2: ...eta beste hori badakizue?
P3: Kontatu medikuarena.
P4: Hori bai ona!
P2: Ondo da...
Gizon bat medikuarengana joan, eta zera esan zion:
- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- PRRRRRRRRRRRR!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean!

P1ek atrila botata ikusiko du eta kezkatzen hasiko da; besteak, bitartean, barrezka egongo dira.

P1: Ai ama! Baina nor ibili da hemen? Guk dena prest utzi eta...
P5: Ez larritu, haizea izango zen.
P1: Hemen ez dago haizerik.
P5: Haize bolada egon da oraintxe bertan. (Puzkerra egingo du berriz, eta barrezka hasiko da, eta, berarekin batera, beste hirurak ere bai).
P2-3-4: Ze ona!!!!
P1: Jarri dena behar bezala, mesedez, eta hasi dadila entsegua.

4. ESZENA

- P1: Ea, nire txanda heldu da.*
P2: Bada garaia!
P3: Orain arte, agintzen eman duzu denbora eta!
P4: Bota zure txistea behingoz.
P5: Ezin dut imaginatu.

P1 txiste bat kontaktzen hasiko da; oso txarra da, eta inori ez dio barregararik emango. M2 negarrez hasiko da.

- P1: Ondo da, ea hau zer iruditzen zaizuen...*
P2: Laura Kaldera?
- Diozunez, zure bila joan zen laurak aldera zure etxera, ezta?
- Bai.
- Nor zen?
- Esan dizut ba, Laura Kaldera.
P3: Baina nor da Laura Kaldera?
P4: Zure gelakoa?

Guztiak pentsakor geratuko dira, txistea ulertu ez dutenaren seinale. Negar bat entzungo da, guztiok elkarri begira hasi, eta negarra nondik datorren bilatzen hasiko dira. Eszena hau musikarekin doa. Bilatzeko koreografia. P4 eta P5, M2 negartia aurkituko dute eta eszenatokira aterako dute.

- P5: Begira, beste ikastetxekoan espia aurkitu dugu!*
P4: Gure txisteak kopiatzen, ezta?
P3: Zelako mozorro polita!
P2: Hauek irabaztera datoz.
P1: Joko zikinarekin.

Bat-batean, M2 askatu egingo da, eta besteak izutzeko keinu han-diak egingo ditu. Besteak barre egiten hasiko dira. Beste munstruo guztiak agertzen joango dira, gazteak ikaratzeko asmoz. Barreak eten egingo dira, nolabait serioa dela konturatuko dira.

- M1: Aizu! Egon zaitetze geldi, hau serioa da.*
M2: Ez gara beste ikastetxeko lagunak...
M3: ...eta hau ez da mozorroa...
M4: Munstro beldurgarriak gara... (munstroek beren izena esango dute, banaka)
M5: Eta gauza baten bila etorri gara.
M1: Txisteen gose gara!
GG: Txistek?
MG: Bai, txistek!
M2: Txisterik gabe... akabatuta gaude.
M3: Txistekin elikatzen gara.
M4: Umeak baino goxoagoak dira.
MG: SSSSHHH!!!
M5: Guk ez ditugu gustuko umeak.
M1: Ipuinetako idazleek asmatu dute hori.
M2: Gure ospe txarrarako.

Gazte guztiak pentsakor geratzen dira. Azkenean, P3ri ideia bat bururatzen zaio.

- P3: Beraz, ez zarete arriskutsuak, ezta?*
M3: (Eztula egiten) Txiste-kontalarien aurka, ez.
M4: Inondik inora ere ez.
P3: Ideia bat daukat! Zuek ere txiste-kontalariak izango zarete!

Munstroak eta gazteak biribila egingo dute. Xurumurrua. Ilun.

5. ESZENA

M2 eta M5 txiste bat kontaktzen agertuko dira, munstroen txisteak.
Beste guztiak barrez lehertuko dira. P1 saria ematen agertuko da.

P1: ...eta aurtengo txiste lehiaketaren saria, Munstroentzat izango da.

Txaloak. M2 eta M3 sari bila atera,dira eta txisteak kontaktuko dute.

M2-M3: Munstroen bilkura bat egon zen. Guztiak pozik zeuden, Drakula izan ezik, ardoa beharrean odola nahi zuelako. Drakulak odola eskatzen zuen etengabe, baina beste guztiak ezetz erantzuten zioten. Halako batean, bere burua balkoitik behera bota, eta, bueltan, odol arrastoak zituen ahoan.
- Azkenean odola lortu duzu, ezta?
- Ixo! Kriston kolpea hartu dut eta!

Eszenatokira aterako dira guztiak, barrezka, saria ospatzera.
Amaiera.

